

# ORDULARIAK ZAPALTZEN

**Materiala:** Palankana, ura, zapiak eta erratza.

**Jokatzeo era:**

Prest dagoen ume bat kanporatuko da. Ondoren erlojua eskatu daukaten guztiei eta gelan zehar lurrean sakabanatuta jarriko dira. Jokatuko duen haurra gelako alde batean jarriko da, haren aurrean bi aulki eta hauen gainean erratz bat. Umeari zer egin behar duen azalduko zaio. Hasteko, erratzaren gainetik pasa eta gelako beste aldera iritsi behar du erlojuak zapaldu gabe. Baina hori oso erraza denez, zailago izateko, begiak itxita egin beharko du. Horretarako, lehenengo, begiak irekita dituela. Bi edo hiru aldiz egingo du, ibilbidea ondo ikasteko. Prest dagoenean, begiak itxiko zaizkio eta oinetakoak kentzeko esan, erlojuren bat zapalduz gero ez dezan hondatu. Ibilbidea egiteko prestatu eta erratzaren gainetik pasatzeko hanka jasotzen duenean, beste aldean urez betetako palankana jarriko diogu eta hanka bertan sartuko du. Jolas honen bukaera aldatu egin daiteke. Ura jarri ordez erloju guztiak jaso eta ibilbidea eginaraziko zaio. Bera beldur handiz mugituko da erlojuren bat zapaltzeko beldurrez. Eta gelan dauden guztiek eskuinera, ezkerrera edo kontuz oihukatuko diote, benetan erlojuak baleude bezala.

